

Kutxa Ekogunearen Hizkuntza Politika

Beste edozein giza ekintzak bezala, gure erakundeak ere hizkuntza aniztasunean eta euskararen biziberritzean eragiten du. Hala, gure gizartearen garapen jasangarriarekin dugun konpromisoa dela-eta, **Kutxa Ekoguneak** jarraian ageri den hizkuntza politika ezartzea erabaki du.

Kutxa Ekogunean begirada ekologiko bera partekatzen duten hizkuntza politika eta ingurumen politika erdigunean eta elkarren eskutik helduta eta modu osagarrian kudeatzen dira. Hala izanik, ondorengoak dira **Hizkuntza Politikaren HIZKUNTZA-HELBURU OROKORRAK**:

- **Kutxa Ekogunearen** proiektua diseinatu, garatu, gauzatu eta abian jartzeko prozesu osoan zehar hizkuntza aniztasunerako eta euskararen biziberritzerako **estandarrik eta ziurtagiriak** ezartzea, jasangarritasunaren erreferentzia zentro bihurtu dadin.
- Kutxa Ekogunearen **bezero eta erabiltzaileek** idatziz zein ahoz zerbitzua eta informazioa jasotzeko hizkuntza hobetsia aukeratu ahal izatea, bezeroei zerbitzua euskaraz jasotzeko duten eskubidea bermatzea eta aukera dagoen guztietan euskaraz egitea, besterik eskatu ezean. Hala, harrera hizkuntzari dagokionez, lehen hitza euskaraz izango da beti.
- **Produktuak, zerbitzuak eta hornitzaileak** aukeratzeko orduan, sistematikoki hizkuntza arloko bikaintasun-irizpideak txertatzea, erakundeak eragin ditzakeen ondorioak etengabe murrizteko eta hornitzaileen katean ere horiek aplikatu daitezela sustatzeko.
- Modu sistematiko eta garden baten bidez, bere jarduerarekin loturik dauden **hizkuntza paisaiaren eta hizkuntza eraginen kudeaketaren** jarraipena, zuzenketa eta ebaluazioa egitea.
- Euskararen biziberritzean eragileak diren neurrian, enprekin, administrazio publikoekin eta gizarte zibilarekin batera **parte hartzea**, prozesu, gaitasun eta ezagueren transferigarritasuna sustatuz.
- Hizkuntza Politika ezarri eta haren jarraipena egiteko, Zuzendaritzak **Hizkuntza eta Ingurumen Batzorde Teknikoa osatzea**. Batzordeak funtzio hauek izango ditu: ezarpen plana definitzea; haren urteko jarraipena egitea; Politikak behar bezala hedatzeko beharrezkoak diren langileen prestakuntza eta prozedurak garatzea; eta, aldian behin, kontratazio berdeari eta hizkuntza kontratazioari dagokion politikaren aplikazioa Zuzendaritzari aurkeztea.

Politika honen bitartez, **Kutxa Ekoguneak eta Ekogunea parkean diharduten gainerako zerbitzuen hornitzaileek kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko, Erreferentzia Marko Estandarreko adierazleetan (EME) oinarritzen den ondorengo lau HIZKUNTZA-KONPROMISU nagusi hauek hartzen dituzte bere gain, Ekogunea parkearen diseinuari, garapenari, gauzatzeari, abian jartzeari eta funtzionamenduari dagokionez:**

1.- Paisaia Linguistikoa eta irudi korporatiboa.

Euskarari lehentasuna emango zaio. Zehaztutako kasu batzuetan (gune nagusien izendapenetan edo lan-arroparen errotulazioan adibidez) euskara erabiliko da soilik. Horrela ez den kasuetan, idatzizko beste euskarrietan (produktuak, menua, marketing eta publizitate euskarriak, webgunea, errotulazio finkoa eta aldakorra...) gutxienez euskara eta gaztelania erabiliko dira eta beste hizkuntza gehiago erabiltzea bultzatuko da. Hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen den kasu guztietan, euskarari lehentasuna emango zaio eta euskara aniztasun honen erdigunean kokatuko da. Zerbitzu eskaintza bakoitzean, produktu eta idatzizko euskarri nagusi batzuetan, hizkuntza aniztasuna bultzatzea eta erabiltzea lehenetsiko da.

2.- Bezeroekin harremana.

Bezeroarekin harreman zuzena duten langile guztiek euskaraz eta gaztelaniaz aritzeko gaitasun maila egokia izango dute. Hizkuntza-portaerari dagokionez, euskararen erabilera lehenestea eta bultzatzea, gardenak izatea eta nahi duten guztiei gure jardueri buruzko hizkuntza informazio garrantzitsua eskainiko zaie. Bezeroekin lehen hitza euskaraz izango da beti, bezeroari hizkuntza autua egiteko eskubidea bermatuko zaio, eta ahal den guztietan eta besterik ezean, euskara erabiliko da ahoz zein idatziz.

3.- Prozesuak eta hornitzaileekin harremana.

Prozesuak aplikatzea, indarrean den hizkuntza legeria betetzea, hornitzaileen aukeraketan eta erosketetan, ingurumen irizpideekin batera, hizkuntza-irizpideak erabiliko dira produktuak erosi, zerbitzuak kontratatu eta zerbitzuak emateko orduan, horretarako beharrezko baliabideen esleipena egitea. Edozein kasutan, zerbitzua euskaraz eskaintzen duten hornitzaileak lehenetsiko dira.

4. Lan hizkuntzak.

Lankideen artean eta Ekoguneko lankideekin erabiltzen den ahozko zein idatzizko harreman hizkuntza euskara izango da eta hori ahalbidetzeko neurriak hartuko dira, hala nola, euskara ikasteko laguntzak izatea, laneko formazioa euskaraz jasotzea, euskara ulermena bermatzen den kasuetan, euskara erabiltzea, edo/eta euskara ulermena ez dagoen kasuetan, xuxurlari laguntza eskaintzea.